Hizkuntzen kohabitazioa gure komunikazio euskarrietan

Tresnen ustezko demokratizazio garaiotan, komunikazioa ekintza konplexua da bere teknikotasunagatik, eta denbora asko eskatzen duena bere alderdi sortzaileagatik. Hori aski ez balitz, berehalakotasunaren gizartean, fite komunikatzea kasik etengabeko exijentzia bilakatu da.

Elebakartasunera usatu erakundeetan hizkuntza gehigarri bat ezartzea, askotan, muga gisa bizi da: egituraren identitate grafikoaren kontra doala iruditzen da, euskarriak kargatzen dituela, irakurketa-bideak nahasten dituela eta algoritmoek gustukoa ez dutela.

Hala ere, eleaniztasuna arrunta da hainbat herrialdetan, non hizkuntza asko elkarrekin bizi diren, bai komunikazio-euskarrietan, bai biztanleen arteko harremanetan. Hemen, euskaraz komunikatzeak entzuleria zabaltzea, mezuaren eragina indartzea eta hizkuntzaren biziberritze-prozesuari modu zehatzean laguntzea bideratzen du, hizkuntza espazio publikoan presente eginik.

Ibilbide praktiko bat, gure idatzizko eta ikus-euskarrietan (afixak, triptikoak, aldizkariak, webgunea, sare sozialak, bideoak…) eleaniztasunaren zentzua eta teknikak hobeki ulertzeko aukera ematen duena. Nola bereizi hizkuntzak grafikoki? Zergatik jarri euskaraz, denek frantsesez ulertzen badute ere? Bi zutabe ala aurpegia/atzealdea? Egin ote daiteke afixa bat euskaraz eta beste bat frantsesez? Zinez inportantea ote da dena itzultzea?...

Hainbat diziplina teorikoren bidegurutzean eman dugun formakuntza bat: soziolinguistika, informazio eta komunikazio zientziak, erakundeen funtzionamendua… eleaniztasunaren komunikazio-xarta edo gida praktiko baten definizioa ekar dezakeena, ondotik.

Hasierako formakuntza (14or.)

Hizkuntzen kohabitazioa gure komunikazio-euskarrietan: Zergatik? Nola?

Egitarauan: desafioen ulermena, aholkuak, adibide inspiratzaileak eta saihestu beharreko tranpak. Hausnarketa sakona, gaurko egoeraren behaketan eta praktiken azterketan ere oinarrituko dena, aplikazio hobea izateko.

HELBURUAK

- Erakundeen komunikazioaren oinarriak identifikatzea.
- Komunikazio eleaniztunaren funtzioei buruz hausnartzea.
- Hizkuntzen kohabitazio grafiko eta editorial hobea lortzeko teknikak ezagutzea.

Formakuntza finitzean, gai izanen zara:

- Komunikazio eleaniztunaren desafioak eta abantailak ezagutzeko.
- Komunikazio-estrategia eleaniztun koherente eta egokitu bat abian jartzeko.
- Komunikazio-euskarri eleaniztun irakurgarri eta orekatuak sortzeko.

EDUKIA

Sarrera 3,5h
Egituren komunikazioaren oinarriak - Igorlea, hartzailea eta beste elementu batzuk - Euskarriak, horien erabilera eta identitate grafikoa – Testuinguru soziolinguistikoa eta publikoen segmentazioa.

Komunikazio eleaniztuna, zergatik? 3,5h
Euskararen historia sozial laburra – Hizkuntza gutxituen biziberritze-prozesua - Komunikazio eleaniztunaren erronkak.

Komunikazio eleaniztuna, nola? 3,5h
Hizkuntzen kohabitazio-modu ezberdinak – Prozedura grafiko eta editorialen azterketa - Hizkuntzen kohabitazio harmonikoa lortzeko gakoak – Elkarbizitza hobearen alde eginiko ekarpena.

Praktikan jartzea 3,5h
Prozeduren egokitzapena – Kodifikazio grafiko eta editoriala – Aholku zehatzak – Formakuntzan ikasitakoaren berrikuspena – Ikasitakoa eguneroko lanean txertatzeko metodoak – Formakuntzaren bukaerako balorazioa, ikasitakoaren ebaluazioa eta etorkizuneko ikuspegiak.

PUBLIKOA

Egitura pribatu (enpresak, elkarteak, kooperatibak, langile independenteak) edo publiko bateko langile edo arduraduna.
Gutienez 6, gehienez 14 pertsonako taldeak.

Urritasunen bat duten pertsonentzat, jar zaitezte harremanetan zuzenean administrazio arduradunarekin (Gratien Harlouchet Kamila) 06 61 50 09 29 zenbakian, behar bereziak aztertu eta ezar litezkeen egokitzapen posibleak ikusteko.

BEHARREZKOA

Ez da aitzin-baldintzarik behar.

ORDUTEGIA, EGUTEGIA ETA LEKUA

- Iraupena: 2 formakuntza-egun, eguneko 7 orduko oinarrian, hots, formakuntza osorako 14 ordu. Egun-erdika deklinagarria.
- Data: zehazteko
- Ordutegia: 9:00 – 12:30 edo 13:30 – 17:00
- Lekua: zehazteko

TRESNAK & OINARRI PEDAGOGIKOAK

- Metodo pedagogikoak: saio dinamikoak, ilustratuak eta parte-hartzaileak.

Eduki teorikoen eta aplikazio praktikoen txandakatzea.
Ikuspegi inklusibo eta progresiboa, talde-kohesio handia sortzen duena.
Bi formatzailez osatutako talde pedagogikoa, ikasleei ikuspegi global eta osagarria eskaintzeko

- Tresnak: formakuntza-euskarriak parte-hartzaileei emanak, urratsa sakontzeko. Wifi, bideo-proiektagailua eta tokian berean bazkaltzeko aukera.

TALDE PEDAGOGIKOA

2 formatzaile esperientziadun:

- Eneko Gorri: erakundeen komunikazioan eta soziolinguistikan diplomaduna, 12 urteko esperientzia toki-administrazio publikoko zerbitzuburu gisa, eta 20 urte baino gehiagoko engaiamendua elkarte munduan.

- Xan Aire: 16 urteko esperientzia soziolinguistika-formatzaile gisa, irakasle, boluntario, langile eta tokiko agenteentzat.

EBALUAKETA

Formakuntzan ikasi denaren azken ebaluazioa.
Formakuntza bukatzean, parte-hartzaileek ebaluazioa eginen dute satisfakzio-galdetegi baten bidez.

FORMAKUNTZA AGIRIA

Formakuntza-ziurtagiria.

SEGIDA POSIBLEAK

- Hemen ikasia sakontzea, eta gida adostu eta aktatu batera ekartzea, praktika berriak egongortzeko | 21or.
- Idatzia landu ondoan, euskararen ahozko erabilera lantzea eta bermatzea lantaldean | 14or.

PREZIOA

- 28 € / oren eta ikastunka,
- Formakuntza osoa 392 € BEZ TVA barne ikastun bakoitzeko.

Data:
XX XX XX

Eskaintza hau 60 egunez baliagarria da.

Eguneratzea: 2026/07/31